

ekipo

2021 MARTXOA | MARZO **n° 21** zk.



EL DÍA A DÍA DE ASPACE GIPUZKOA TIENDE A LA NORMALIDAD

**LOGOPEDIA
ZERBITZUKO
LANTALDEA**

**ASPACE GIPUZKOA
SE ADHIERE A LA
CAMPAÑA DE EMAKUNDE**

**URRETXUN LOKAL BERRIA
IREKI DA SASKIGINTZAKO
PRODUKTUAK SALTZEKO**

**PROYECTO CENTRO
DE DÍA, UNA REALIDAD**

**ASPACE GIPUZKOAKO
HEZKUNTZAKO
PROFESIONALAK
ETORKIZUNEKO BERGARA
DISEINATZEKO
PARTE-HARTZE
MAHAIAN DAUDE**

**ASPACE GIPUZKOAK
ARRASATEKO
MERKATARIEKIN
ELKARLANA BURUTU DU**

2020a urte zaila izan da. Pandemiak guztion normaltasuna eraldatu du, eta une oro egokitu behar izan dugu egoera epidemiologikora. Pertsonen arteko eta pertsonetiko harremanetan eragin handia izan du. Hala eta guztiz ere, garun-paralisia duten pertsonak erakutsi dute egokitzeko gaitasun handia dutela. Familiek eta profesionalak aparteko egoera horretan duten zeregin funtsezkoa eta balio handikoa izan da.

Ezustekoen kudeaketek lehenetasuna izan duten arren, Zuzendaritza Batzordeak aurreikusitako ekintzen % 80a baino gehiago egin edo abiarazi dira.

Erronka sanitarioaz gain, erronka soziala ere badugu. Une honetan, garrantzitsua da gure arreta gure helburu nagusian bilakatzea: garun-paralisia duten pertsonak bizi-plana ahalik eta modu inklusibo eta autonomoan gara dezaten laguntzea eta behar duten laguntza eskaintzea.

2020 ha sido un año difícil. La pandemia ha transformado la normalidad de todos/as y hemos tenido que ir adaptándonos en cada momento a la situación epidemiológica existente. La relación entre y con las personas se ha visto especialmente afectada. A pesar de ello, las personas con parálisis cerebral han demostrado que tienen una gran capacidad de adaptación. El papel de las familias y de los/las profesionales en esta situación excepcional ha sido fundamental y de gran valor.

La gestión de la urgencia ha sido lo prioritario, pero a pesar de ello se han llevado a cabo o se han puesto en marcha más del 80% de las acciones previstas por la Junta Directiva.

Además del reto sanitario, tenemos un reto social. En estos momentos, es importante que volvamos a resituar nuestro foco de atención en nuestro principal objetivo: acompañar y ofrecer el apoyo necesario para que las personas con parálisis cerebral desarrollen su plan de vida de la forma más inclusiva y autónoma posible.

Elisa Carmona,
Presidenta de Aspace Gipuzkoa



ASPACE GIPUZKOA SE HA ADHERIDO AL PROGRAMA ASPACE POR "TUS DERECHOS"



Confederación Aspace ha puesto en marcha el Programa Aspace por Tus Derechos, cuyo objetivo es formar a los/las profesionales de las entidades Aspace en derechos, así como en el asesoramiento legal para el ejercicio de los mismos.

Durante el primer trimestre de 2021 hemos participado en:

- El Seminario sobre implicaciones prácticas de la reforma del sistema de incapacitaciones judiciales
- El Ciclo formativo sobre protección patrimonial en personas con parálisis cerebral

Está previsto participar en:

- El Ciclo formativo sobre autodefensa de derechos en personas con parálisis cerebral
- El Seminario sobre intimidad y privacidad en las entidades Aspace
- La investigación Derechos y Parálisis Cerebral

PROYECTO CENTRO DE DÍA, UNA REALIDAD

Arantxa Baraibar e **Idoia Bea**, responsables de los centros de día de Urdanibia (Irún) e Intxaurreondo Cestería (Donostia) nos dan las claves de la elaboración del “PROYECTO CENTROS DE DÍA SERVICIO DE ADULTOS” de Aspace Gipuzkoa

¿Cuál es el origen del proyecto?


Arantxa Baraibar: Los equipos de profesionales de los Centros de Día del servicio de Adultos hemos dedicado mucho tiempo y esfuerzo a la reflexión sobre nuestra práctica profesional. Hemos escrito mucho sobre nuestro modelo de trabajo en las diferentes áreas de preocupación. Con este documento pretendemos recoger esa historia, ordenarla y ponerla en valor para poder compartir un modelo de trabajo del que los equipos de profesionales nos sentimos muy satisfechas.

Idoia Bea: Se trata de un modelo teórico de intervención socioeducativo que llevamos tiempo construyendo. Este documento recoge los fundamentos teóricos y la práctica de nuestro trabajo.

¿Cómo ha sido el proceso y cómo os hace sentir?

Idoia Bea: Ha sido un proceso largo, años de trabajo, reflexión y análisis de la práctica. Años de trabajo con nuestras personas usuarias identificando las claves para que la asistencia a nuestros Centros de Día ofrezca experiencias de vida y relación que nos permitan vivir con sentido y dignidad.

Arantxa Baraibar: Era importante que lo hiciéramos, ha sido muy satisfactorio poder recoger estas claves y ver que, a pesar de los años, nuestro modelo de trabajo sigue siendo innovador.



Las y los profesionales de Aspace Gipuzkoa sois muy importantes...

Idoia Bea: Como equipos de educadoras hemos aprendido a ser parte de la solución de la casuística educativa a la que debemos hacer frente en la tarea diaria. A través de las coordinaciones hemos ido aprendiendo, formándonos en nuestro modelo y construyéndolo al mismo tiempo. Eso tiene un impacto directo en la motivación, en sentirnos valiosos y empoderados.

¿En qué se basa el modelo?

Arantxa Baraibar: Es una oferta para que las personas tengan unas vidas satisfactorias y ricas. Donde ellos son los protagonistas.

Idoia Bea: Abogamos por una realidad de convivencia heterogénea, donde todas las personas tienen cabida y todas las personas participan según sus posibilidades.

Arantxa Baraibar: Tratamos que todos nuestros programas tengan sentido en la vida de las personas usuarias.

¿Y qué me dices de los nuevos profesionales?

Arantxa Baraibar: Para los nuevos profesionales es vital que conozcan este proyecto.

¿Cuáles son los retos que os planteáis?

Idoia Bea: Afrontar el proceso de envejecimiento de las personas que acuden a nuestros Centros así como adaptar los programas de apoyo a sus necesidades y al de sus familias.

Arantxa Baraibar: Avanzar en Planes de Vida para las personas usuarias más allá de los servicios a los que acuden.

IDOIA BEA

"Nuestro trabajo es **CON** los usuarios y **no PARA** los usuarios. De ese proceso del análisis de la práctica nos permite crear un espacio de igualdad y paridad"



ARANTXA BARAIBAR

"Resulta muy satisfactorio poner en valor la labor que realizamos desde el Servicio de Adultos en los Centros de Día de Aspace Gipuzkoa"

LOGOPEDIA ZERBITZUKO LANTALDEA

IKASTURTE HONETAN ASPACE GIPUZKOAKO IKASTETXEEK
HARTU DUTEN ERRONKA NAGUSIETAKO BAT
“LOGOPEDIA ZERBITZUA”REN DISEINU BERRIA DA

“Uno de los retos que se han propuesto afrontar las escuelas de Aspace Gipuzkoa es el nuevo diseño del servicio de logopedia”

“El grupo ha sido reforzado con dos nuevos miembros”

“Las reuniones de coordinación se realizan cada semana”

“Están recibiendo la ayuda externa de varios formadores y organismos”



Argazkia: Logopedia taldea

2020an Confederación Aspaceren eskutik Aspacenet proiektua eraman genuen aurrera eta berau garatzen ari ginelarik konturatu ginen Aspace Gipuzkoa erakundeak **berrikuspen sakon bat** egin behar ziola **logopedia aldetik eskaintzen eta ematen zuen zerbitzuari**.

Hausnarketa fasea

Hausnarketa fase bat irekitzea izan zen gure lehenengo lana, eta bertan gai hauei buruzko analisi bat egin:

- Zeintzuk dira logopeda baten lan espezifikoak
- Zeintzuk dira gure ikasle eta familien beharrak logopedia aldetik
- Zein erantzun eman beharko genieke gure ikasleei Aspacetik
- Zer dakigu egiten
- Zer ikasi behar dugu egiten
- ...



Bi kide berri

Fase honen ondoren, eta ikusita norantz jo nahi genuen, lehenengo erabakietako bat izan zen logopedia lantaldea indartzea eta horretako bi kide berri gehitu genizkion dagoeneko lanean ari zen taldeari.

Koordinazio bilera

Orduz geroztik astero izaten dute koordinazio bilera, ikasturte honen amaierarako Aspace Gipuzkoaren Logopedia zerbitzuko proiektu berriari forma emateko.

Bertan bi eremu nagusi azpimarratuko dira:

- Alde batetik irensketa eta elikaduraren atala.
- Eta bestetik komunikazioa: komunikadoreak, dispositiboak, heltzeko sistemak, tableroak ...

Bidelagunak

Bide honetan ere bidelagun ditugu kanpoko zenbait erakunde eta formatzaile: BJ adaptaciones eta Irisbond-eko ekipoak, batez ere.

21-22 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO KANPAINA

LA CAMPAÑA DE MATRICULACIÓN DEL CURSO 21-22 SE CERRÓ A FINALES DE ENERO

Ikasturte guztietan bezalaxe, aurten ere urtarrila amaierarako itxi zen 21-22 ikasturterako ikasleen ohiko matrikulazioa egiteko epea.

Aspace ikastetxeen kasuan, Heziketa bereziko ikastetxea izanik, epea luzeagoa da ikasleen balorazioak egin behar direlako, batzuetan beste ikastetxe batzuetatik deribazioak izaten direlako eta Hezkuntza Sailak hezkuntza premia berezien urteko mapa osatu behar duelako.

Datorren ikasturterako erronkarik handiena izango da gure gelak ikaslez hornitzea.

Ikasturte honetan gure ikasle izateari utziko diote aurten 20 urte beteko dituzten hamaika ikaslek, eta gure gela guztiak irekita mantentzeko ikasle berriak matrikulatzea behar dugu.

Hurrengo "ekipo" aldizkarirako itxita izango dugu ikasleriaren antolaketa eta emango dizuegu emaitzaren berri.

“El próximo curso 11 alumnos y alumnas cumplirán 20 años y dejarán de asistir a nuestras aulas”



HEZKUNTZA SAILAREKIN BILERAK

Aspace Gipuzkoak adimen eta garapen urritasuna lantzen duten beste erakunde batzuekin (FEVAS) batera Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuarekin, eta bere taldearekin izandako topaketa batean parte hartu du.

Joan den otsailaren 23an, Lakuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza arduradunek bilera egin zuten Fevas, Apnabi, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa eta Gautenako ordezkariarekin.


Gobernu-talde berriarekin izandako lehen topaketa izan da, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskolatzea eskaintzen dieten erakundeen beharrak ezagutzeko prest agertu dira.

Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu du erakundeekin elkarrikeria sistematikoa edukitzeko eta guztientzat interesgarriak diren gaietan aurrera egiteko.

Hezkuntza delegaritzarekin ere bildu gara

Martxoaren 16an, Aspace Gipuzkoako arduraduradunak Amaia Urzelai, Gipuzkoako Eusko Jaurlaritzako hezkuntza ordezkari berriarekin bildu dira elkar ezagutu eta Aspaceren berri emateko.

ENCUENTRO DE PRESIDENTES/AS DE ENTIDADES ASPACE



El pasado 12 de marzo se celebró el primer encuentro del año 2021 de Presidentes/as de entidades Aspace organizado por Confederación Aspace. Este grupo de trabajo de presidentes viene funcionando desde hace varios años y tiene como áreas de trabajo las siguientes:

- Dinamización del movimiento asociativo y participación
- El modelo organizativo de las entidades
- Perspectivas de futuro y gestión del cambio
- Relación con las administraciones públicas y otras entidades


ASPACE GIPUZKOA SE ADHIERE A LA CAMPAÑA DE EMAKUNDE

El 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer, Aspace Gipuzkoa y sus trabajadoras y trabajadores, se han sumado a la campaña de sensibilización propuesta por el Instituto Vasco de la Mujer, EMAKUNDE.

El lema de este año "**¿Quién cuida?** Hagámoslo visible. Hagamos nuestra parte" llama a visibilizar, valorar y repartir los cuidados entre toda la sociedad.

ACCIONES QUE SE HAN DESARROLLADO EN ASPACE GIPUZKOA

- El equipo de igualdad hace suyo el lema de EMAKUNDE y propone una reflexión sobre la necesidad de poner en valor el ámbito de los cuidados.
- La importancia de nuestra labor en la vida de las personas usuarias y sus familias.



EIDER MENDOZA LARRAÑAGA
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Gobernantza Diputatua eta Bozeramailea

"Zenbat aldatu zaigun bizitza denoi azken urtean. Zenbat ikasi, aldatu eta berrikasi behar izan dugun. Oso urte gogorra izaten ari da, eta benetan uste dut, komunitate bezala erantzuten jakin dugula. Geure burua zainduz, aldamenekoak zaintzen ditugula erakutsi digulako birus honek. Txertoek itxaropenizpiak ekarri badizkigute ere, oraindik ere geure burua zaintzen jarraitu beharra daukagu, gainontzekoak ere zaintzen jarraitzeko.

Pandemiak irakasgai asko ekarri dizkigu, erronka itzela izaten ari da, baina balioan ere jarri ditu gure gizarteko hainbat eta hainbat indargune. Horien artean bat azpimarratu nahi nuke: Gipuzkoako babes sistema, pertsona zaurgarrienak zaintzen dituena. Familiak, lagunak, auzokideak, erakundeak, elkarteak, hainbat eta hainbat gizarte eragile... Denok bat hartuta, gehien behar dutenen alloan, babesa, maitasuna eta behar duten zaintza ematen.

Ezinbestekoa da zaintza-lan guzti horiek ikusgarri egitea eta balioan jartzea, askotan, isil-isilik eta borondate onenarekin egiten diren horiek. Gipuzkoan babes sistema publiko oso aurreratua dugu, egoera eta denbora berrietara egokitzen jakin duena, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest ere badagoena.

Milaka lagun lanari esker, aldamenekoa zaintzen duen lurraldea gara. Eta hala erakusten ari gara pandemia honen testuinguruan ere. Izugarria da egiten ari den lana. Jarrai dezagun horretan. Gizarte aurreratua izango baikara, bakarrik, zaintza-lanak erdigunean ipini eta benetan duten balioa ematen badiegu."



LOURDES PÉREZ REBOLLAR
Subdirectora de El Diario Vasco
y patrona de la Fundación Aubixa

"CUIDAR ES SENTIR... Y PENSAR

Las palabras esconden muchas cosas sobre sí mismas y, con ellas, mucho de nosotros. Cuidar es uno de esos verbos que llaman "bonitos", porque remite a algo positivo, constructivo, a la empatía, a la entrega, a la conciencia del otro. En su origen etimológico, en el latín del que procede, el término seguía siendo bonito pero su significado se ampliaba: bebía de las fuentes de 'cogitare', es decir, de 'pensar'. Es un hallazgo feliz que el acto de cuidar –el arte de sentir– se enriquezca con ese otro sentido. El de pensar. Pensar en el bienestar del otro, pensar en el compromiso de uno mismo, pensar en cómo hacerlo individual y colectivamente para mejorar y prestigiar los cuidados. Para poder sentir el valor de éstos con la mayor plenitud posible, con todo el amor y sin cargas ni culpas."

¿CÓMO SE ESTÁ VIVIENDO LA EVOLUCIÓN DEL COVID-19 EN ASPACE GIPUZKOA?

La crisis que estamos viviendo por el COVID-19, está afectando tanto a los niños/as como adolescentes y personas usuarias que acuden a los centros de la Asociación o viven en las viviendas de Aspace Gipuzkoa, y cómo no, también a sus familias.

Aunque la gran mayoría de los servicios (educación, centros de día y vivienda) están abiertos, la aplicación de los protocolos sanitarios supone una dificultad añadida a la hora desarrollar actividades normalizadoras en el día a día de la Asociación o incluso mantener la planificación prevista. Además, continuamos sin poder ofrecer estancias temporales en las viviendas y tenemos dificultades en el diseño de servicios como el apoyo fin de semana, el transporte, servicios de externos, voluntariado...

La incidencia de casos positivos durante los meses de diciembre, enero y febrero ha sido escasa. Únicamente se ha suspendido la actividad durante 14 días, por caso positivo en COVID en los centros de día de Urretxu y Oxirondo de Bergara.

A pesar de las restricciones y dificultades seguimos intentando avanzar para que el día a día de las personas que acuden a los servicios de la Asociación y de sus familias sea mejor.

Acciones llevadas a cabo:

- Gestión realizada con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la autorización de estancias temporales en situaciones de emergencia o necesidad especial por parte de las familias.
- Solicitud de autorización a los centros titulares donde disponemos aulas estables (Santa Teresa en Donostia, Luis Eceiza en Eskoriatza, La Salle-Berrozpe en Andoain, Herrikide en Tolosa e Instituto de Arrasate) para poder abrir en periodo de vacaciones de Navidad o días de carnaval.
- Reapertura escalonada de la piscina en Goienetxe, respetando los grupos de convivencia estable tanto de los alumnos/as como de las personas usuarias adultas.
- Puesta en marcha de CODEA (Coordinación de delegados/as de personas adultas)
- Reapertura del servicio de apoyo de fin de semana y servicio especial de Semana Santa.
- Flexibilización de las visitas y las salidas en las viviendas.


TXERTAKETA-PROZESUA

Aspace Gipuzkoako txertaketa-prozesua urtarrilaren 8an hasi zen. Data horretatik aurrera, Elkartea erakunde eskudunek ezarritako txertaketa-jarraibideetara egokitzen joan da.

Erakundeekin lankidetzan aritu gara uneoro, beharrezko datuak emanaz eta Elkarteko kolektiboaren txertaketa-beharrak jakinaraziz.

Txertoa hartu duten profesional kopurua

Guztira, orain arte (2021-03-15) 275 dira txertoa hartu duten profesional kopurua eta 29 geratzen dira hartzeke.



Txertoa hartu duten 16 urtetik gorako ikasle eta pertsona erabiltzaileak

Guztira, orain arte (2021-03-15) 239 ikasle eta erabiltzaileak hartu dute txertoa.



Esteban Lema y su madre Rosi:



Rosi: "Me da una tranquilidad terrible que se vacune Esteban, porque en ello está la seguridad de toda la familia."

Esteban: "Yo quiero ir por la calle sin mascarilla y hacer una vida normal como antes."

Jon Jauregi eta bere ama Maite:



Maite: "Niri izugarrizko lasaitasuna ematen dit txertoak. Gure egunerokoa asko aldatu da eta honek lagundu egingo digu. Errespetu handia diot gaitzari."

Jon: "Txertoarekin bizi normalagoa egitea lortuko dugu".

ASPACE GIPUZKOAK IKASTETXEETAN EGITEN DUEN LANA EZAGUTU DUTE UDAL ORDEZKARIEK IBAIONDOKO EGOITZARA EGINDAKO BISITAN

Aspace Gipuzkoak Ibaiondon duen eskolan egon dira Gorka Artola alkatea eta Ekaitz Aranberri zinegotzia, Kepa Goikoetxea Aspace Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariarekin.

Ibaiondo eskolaren jabetza udaletxearena da eta 1979. urtetik Aspace Gipuzkoak erabiltzen du. 2021ean lagapen hori hitzarmen bidez formalizatzea erabaki da eta horrez gain Ibaiondoko eraikinak zituen gabezia batzuk ere konpondu dira.

Besteak beste, sarrerako eskulekua, arrapala eta teilatua konpondu dira.

Kepa Goikoetxeak, Aspaceko ikastetxeetako zuzendariak aldarrikatu du "gainontzeko ikastetxeei ematen zaien tratamendu berbera ematea da gure helburua, herriaren dinamikan txertatuz".



ASPACE GIPUZKOAKO HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK ETORKIZUNEN BERGARA DISEINATZEKO PARTE-HARTZE MAHAIAN DAUDE

Bergarako Udalak herritarren iritzia ezagutzeko parte-hartze mahaiak sortu ditu diziplina ezberdinetako gaien inguruan. Horien artean, hezkuntza aurkitzen da. Kepa Goikoetxea, ikastetxeetako zuzendariak, azaldu dizkigu ekimenaren nondik norakoak.

Noiz sortu zen mahaiak?

Udalaren plan estrategikoa osatzeko bilerak dira. Hainbat batzar antolatu dituzte perfil desberdinen arabera, eta guri deitu ziguten "hezkuntza" gaia jorratu behar zen bilerara.

Bilera hauek etorkizuneko Bergara nolakoa nahi den diseinatzeko lagunduko dute.

Zeintzuk dira helburuak?

Bergara 2030 plan estrategikoko lerroei buruzko gogoeta egitea.

Zer suposatzen du honek Aspacearentzat?

Bergarako udala eta herriarentzat, beste ikastetxe guztien mailan egotea. Beste guztiek duten parte-hartzea eta proposamenak egin-jasotzeko dugun eskubidea bermatzea.

Bilerarik egin al da?


Orain arte bilera bakarra egin dugu, eta esan ziguten deituak izango garela berriro hurrengo faseetan.

Horrela bada, zeintzuk dira hurrengo pausuak?

Udalak bere plan estrategikoaren diseinuan, hezkuntza eta gazteria gaia lantzen digutenean berriro eskatuko dute gure parte-hartzea.

Aspace Bergarako nork parte hartzen du bileretan?

Josu Agirreurreta (bertako irakaslea) eta Kepa Goikoetxea (ikastetxeetako zuzendaria).



URRETXUN LOKAL BERRIA IREKI DA SASKIGINTZAKO PRODUKTUAK SALTZEKO



Urretxuko Udalak Iparragirre kaleko lokal komertzial bat utzi dio elkarteari saskigintzako artikulua erakutsi eta saltzen laguntzeko.



BIDEOA IKUSI / VER VÍDEO

Urretxuko dendaren irekiera / Apertura de la tienda de Urretxu

La localidad de Urretxu, con motivo de la conmemoración del nacimiento del famoso cantautor vasco, José María Iparragirre Balerdi, ha realizado numerosas adecuaciones en la villa.

Una de ellas ha consistido en mejorar la calle Iparragirre, donde el 12 de agosto de 1820, nació el autor de "Gernikako Arbola" en la casa "Alzola etxea". La misma casa en la que se encuentra el local, propiedad de una familia muy arraigada en la asociación, la cual ha sido cedida a Aspace Gipuzkoa para la exposición permanente de los productos de cestería.

El trabajo en conjunto del ayuntamiento, junto con la familia y la asociación, ha permitido impulsar este proyecto solidario que ayuda a visibilizar la labor que realiza Aspace Gipuzkoa.

La cestería, vehículo de visibilización

Las personas usuarias de Aspace Gipuzkoa llevan años elaborando diferentes productos de cestería: lámparas de mesa, de pie, cajas, cestillos, grandes cestos para guardar objetos diversos... artículos que resultan útiles en cualquier casa y que además son bonitos. Esta labor hace que las personas usuarias se sientan reconocidas y vean que sus creaciones tienen una gran aceptación en la sociedad.

Apertura del local

El local se abrirá los jueves por la mañana, día de feria, y estará atendido por las personas usuarias de Aspace Urretxu.

Trabajo en red y voluntario

La puesta a punto del local se ha realizado de manera voluntaria con la ayuda de varias personas del municipio y miembros de Aspace Gipuzkoa.



Agradecimientos

Desde Aspace Gipuzkoa agradecemos tanto a la familia que ha cedido el local como al Ayuntamiento de Urretxu, así como a todas aquellas personas voluntarias que han hecho posible este proyecto.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

**ASPACE GIPUZKOAKO
IKASLEEK ETA ERABILTZAILEEK
INAUTERIAK OSPATU DITUZTE**



ASPACE GIPUZKOAK ARRASATEKO Merkatariekin Elkarlana BURUTU DU

Jon Apraiz, Arrasateko Ibaiarte Merkatarien Presidenteari elkarrizketa egin diogu Aspace Gipuzkoarekin buruturiko elkarlanaren nondik norakoak ezagutzeko



Zergatik aukeratu dituzue Aspace Gipuzkoak egiten dituen saskiak zuen bezeroen artean banatzeko?

Aspaceko erabiltzaileek egiten duten lana balorean jarri nahi dugu eta gure bezeroek saskiak erabiltzea.

Nola egin duzue saskien aukeraketa?

14 produktu ezberdin aukeratu ditugu: lanparak, tamaina ezberdinetako saskiak, xextoak... azken batean, oso erabilgarriak dira, etxe guztietan aurki ditzakegun gauzak gordetzeko balio dute.

Guztira 1.800 €-ko erosketa egin dugu, ia 100 saski. Hala ere, produktu gehiago erostea aurreikusten dugu erosleak animatzen badira.

Zenbatean behin egiten dituzue horrelako promozioak?

la hilero bat burutzen dugu. Oraingo honetan, Aspace Gipuzkoako produktuak aukeratu ditugu gure bezeroen artean zozketatzeko.

Eta nola parte hartu daiteke zozketan?

Bezeroek erosketa bat egiten dutenean zuzenean sartzen dira zozketan. Horrez gain, gure sare sozialen jarraipena eginez ere parte hartu daiteke.

Aurrera begira beste partaidetzaren bat egiteko aukera ikusten al duzue?

Noski, ekimen gehiago egitea gustatuko litzaiguke. Gure markari balorea ematen dio Aspace Gipuzkoak. Jendearentzat oso garrantzitsua da horrelako ongia egiten duen Elkarte gure inguruan izatea.

AGRADECIMIENTO DE LAS PERSONAS USUARIAS DEL CENTRO UDALAITZ DE ASPACE ARRASATE

Queremos agradecer a la asociación de comerciantes de Ibaiarte de Mondragón que se hayan acordado de nosotros para llevar a cabo su campaña.

Para nosotros es muy importante porque esto nos ayuda a mostrar nuestro trabajo, a darnos a conocer, a poner cara a las personas que trabajamos en el centro. Todo esto nos ayuda a conseguir nuestra inclusión.

Esto nos reconforta y nos da fuerzas y mucho ánimo para continuar y seguir trabajando.

50

URTEURRENA
ANIVERSARIO
1971-2021

ASPACE GIPUZKOA

LOS PREPARATIVOS DEL 50 ANIVERSARIO SIGUEN SU CURSO

El comité organizador del 50 aniversario de Aspace Gipuzkoa está dando pasos firmes. Se está elaborando el Plan de Comunicación definitivo que será la guía que marcará las acciones y su calendario. El objetivo es claro: la asociación representa a 472 personas usuarias y sus familias, es el referente en la atención de personas que sufren parálisis cerebral o una alteración afín en Gipuzkoa y esta fecha tan señalada da la oportunidad de demostrarlo ante la sociedad guipuzcoana.

En estos 50 años Aspace Gipuzkoa ha vivido una gran transformación, pero siempre manteniendo su esencia. Una esencia que se fundamenta en dar el mejor servicio de apoyo dotándose de los mejores profesionales cualificados y con el arropo de las instituciones públicas, así como de colaboraciones de empresas con un marcado carácter social.

Estas bases están sirviendo para afrontar con gran ilusión, pero también responsabilidad, la organización de las bodas de oro de la organización.

e.mail: aspace50@aspacegi.org

APERTURA DEL SERVICIO ESPECIAL DE SEMANA SANTA

Días: 6, 7 y 8 de abril

Horario: 9:00 – 17:00

Lugares: Intxaurrenondo I y II (Donostia), Urdanibia (Irún) y Oxirondo (Bergara)



FAMILIA DE OIER ARENAZA

«Llevamos varios años haciendo uso del Servicio de Apoyo de Fin de Semana, debido a la gran dependencia que demanda nuestro hijo y nuestra avanzada edad. Este servicio se adecua a nuestras necesidades.»



JON ALTUNAREN FAMILIA

«Zerbitzu honek normalean Jonekin egin ezin ditzakegun ekimenak aurrera eramateko gaitasuna ematen digu, mendira joan adibidez. Ez dugu Jon beti utziko, baina noizean behin ekartzeko oso ondo dago.»

PARA CUALQUIER ACLARACIÓN PODÉIS CONTACTAR CON EL SERVICIO DE APOYO A FAMILIAS:

Tfno: 943216055 (Lurdes Kerejeta)
e.mail: l.kerejeta@aspacegi.org

EXENCIÓN COPAGO FARMACÉUTICO

Desde el 1 de enero de 2021 se ha aprobado la exención de gasto farmacéutico. Esta medida afecta a:

- Menores de 18 años que con una discapacidad reconocida igual o superior al 33%.
- Mayores de 18 años, que reciban una prestación por hijo/a a cargo y con una discapacidad reconocida igual o superior al 65%.
- Esta medida tendrá efecto retroactivo desde el 1 de enero, por lo que se recomienda que se guarden los tickets para poder realizar la solicitud de devolución correspondiente.